1.– Para el funcionamiento de cualquier tipo de aparato, producto o instalación industrial incluido dentro del ámbito de aplicación de la presente ley, sólo se requerirá autorización administrativa cuando así lo establezca la legislación vigente.

2.– Fuera del supuesto referido en el punto anterior, el funcionamiento de las instalaciones, aparatos, equipos o productos sometidos a reglamentación de seguridad industrial sólo requerirá la acreditación, ante el órgano competente, del cumplimiento de los requisitos y condiciones técnicas de seguridad reglamentariamente establecidos.

3.– En lo que respecta al ámbito de las condiciones de seguridad, podrán ser objeto de autorización administrativa de carácter excepcional las instalaciones, aparatos, equipos o productos que por su diseño, destino, emplazamiento, ubicación o por cualquier otra circunstancia debidamente justificada no cumplan las prescripciones técnicas vigentes, previa acreditación por el interesado de la adopción de medidas o de la imposición de requisitos alternativos que aporten equivalentes niveles de seguridad.

*10. artikulua.*– Industriako segurtasun-erregelamenduak.

1.– Produktu, tresna edo instalazio bat industriako segurtasunaren aplikazio-eremuan egongo da baldin eta arauren bat badago haren fabrikaziorako, salerosketarako, erabilerarako, instalaziorako edo funtzionamendurako eskakizun eta baldintza teknikoak jartzen dituena.

2.– Segurtasun-erregelamenduak arriskuei aurrea hartu eta muga jartzeko eta istripuen aurka babesteko dira. Arrisku horiek industria-jarduerak dakartzanak edo industriako instalazioen, ekipoen edo produktuen erabilerak, funtzionamenduak eta mantentzeak dakartzatenak dira, eta istripuak, berriz, pertsona edo ondasunei kalte edo galerak ekartzeko modukoak. Erregelamenduetan honako hauek zehaztuko dira:

a) Baldintza eta eskakizun teknikoak.

b) Instalazioak, ekipoak eta produktuak diseinatzen, egiten, erabiltzen eta mantentzen parte hartzen duten profesionalen betebeharrak.

c) Aurretiaz eta aldian-aldian egin beharreko kontrolak.

3.– Sistema modura, eta arrazoizko salbuespenetatik landa, segurtasun-erregelamenduek arau-erreferentziak erabiliko dituzte, eta, horiekin batera, erregelamendua ondo erabili eta aplikatzeko beharrezko iritzitako zehaztasun eta betebeharrak ere bai. Era berean, industriako segurtasun-maila handitu beharra baldin badago, areagotze horri erantzuteko beharrezko eskakizun eta baldintzak ezarriko dituzte, eta, horretarako, unean-unean eskuragarri dauden teknologiarik onenak erabiliko.

*11. artikulua.*– Arlokako erregelamenduak.

Beren xedea eta aplikazio-eremua aintzat hartuta, segurtasun-erregelamenduek gai orokorrak landu ditzakete (prozedura, instalatzaileak, enpresak) edo arlokako gaiak. Azken gaiok arlo hauetakoren batekoak izango dira:

– Produktu kimikoak biltegiratzea.
– Gas-instalazioak, berotze-instalazioak, klimatizazio-instalazioak eta etxeetarako ur beroko instalazioak.
– Hozkailu-instalazioak eta suteen aurkako babesa.
– Igogailuak eta presio bidez dabiltzan tresnak.
– Produktuen eta makinen segurtasuna.
– Istripu larriei aurrea hartzea.
– Ibilgailuak.
– Instalazio erradioaktiboak.
– Energia edo edozein energia-produktu ekoizteko, banatzeko eta biltegiratzeko instalazioak.
– Industriako segurtasunari buruzko arauak bete behar dituen beste edozein gai.

*12. artikulua.*– Nahitaezko betebeharrak.

1.– Industriako segurtasun-arauen pean dauden instalazio, tresna, ekipo eta produktu guztiek, inork erabili baino lehenago edo funtzionatzen hasi baino lehe-

*Artículo 10.*– Reglamentos de seguridad industrial.

1.– Se entiende que un producto, aparato o instalación entra dentro del ámbito de aplicación de la seguridad industrial cuando exista una disposición normativa que establezca los requisitos y condiciones técnicas para su fabricación, comercialización, utilización, instalación o funcionamiento.

2.– Los reglamentos de seguridad tienen por objeto la prevención y limitación de riesgos derivados de la actividad industrial o de la utilización, funcionamiento y mantenimiento de las instalaciones, equipos o productos industriales y la protección contra accidentes susceptibles de producir daños o perjuicios a las personas o los bienes, estableciendo:

a) Las condiciones y requisitos técnicos.

b) Las obligaciones de los profesionales que intervienen en el diseño, ejecución, utilización y mantenimiento de instalaciones, equipos y productos.

c) Los controles previos y los periódicos necesarios.

3.– Los reglamentos de seguridad utilizarán, salvo excepciones que lo justifiquen, el sistema de referencia a normas, y podrán ir acompañados de las especificaciones y exigencias que se consideren necesarias en orden a su adecuada utilización y aplicación. Así mismo, establecerán aquellos requisitos y condiciones técnicas que respondan a un incremento de los niveles de seguridad industrial, utilizando para ello las mejores tecnologías disponibles en cada momento.

*Artículo 11.*– Reglamentos sectoriales.

Los reglamentos de seguridad, de acuerdo con su objeto y ámbito de aplicación, pueden referirse a aspectos de carácter general (procedimiento, instaladores, empresas) o sectorial. Estos últimos, se incluirán en alguno de los siguientes sectores:

– Almacenamientos de productos químicos.
– Instalaciones de gas, de calefacción, de climatización y de agua caliente sanitaria.
– Instalaciones frigoríficas y de protección contra incendios.
– Aparatos elevadores y aparatos a presión.
– Seguridad de productos y de máquinas.
– Prevención de accidentes graves.
– Vehículos.
– Instalaciones radiactivas.
– Instalaciones de producción, distribución y almacenamiento de energía o cualquier producto energético.
– Cualquier otra materia sometida a reglamentación de seguridad industrial.

*Artículo 12.*– Cumplimiento reglamentario.

1.– Todas las instalaciones, aparatos, equipos o productos sometidos a normas de seguridad industrial, con carácter previo a su uso o funcionamiento, deben acre-

nago, arauetan zehazturik dauden industriako segurtasun-baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

2.– Segurtasun-xedapen horiek benetan betetzen dituztela egiaztatzeko, kasuan-kasuan aplikatu beharreko xedapenen arabera, honako bide hauetakoren bat erabili beharko da:

a) Instalazioen titularraren edo produktuen fabrikatzailearen, ordezkariaren, banatzailearen edo inportatzailearen adierazpena.

b) Eragile laguntzailearen egiaztagiria (lege honetako 14. artikuluan dago zehazturik nor diren eragileok).

c) Aplikatu beharreko legeetan eta Europar Batasuneko Zuzenbidean zehazturiko beste edozein egiaztatze-bide.

*13. artikulua.–* Industria Administrazioaren kontrol-ahalmena eta esku hartzeko almena.

1.– Hurrengo puntuan ezarritakoak bere hartan dirauela, Industria Administrazioaren menpeko zerbitzu teknikoek ikuskaritza edo laginketa erabiliko dute industriako segurtasun-arauen menpe dauden instalazioen, tresnen, ekipoen edo produktuen funtzionamendua kontrolatzeko. Kontrol horiek irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Aldian-aldian egin beharrekoak izango dira, organo eskudunek onartzen dituzten ikuskaritzako edo kontroleko planen arabera.

b) Kontrol-prozesu integralak ezarriko dira, bai instalazio, tresna, ekipo eta produktuetarako, bai parte hartzen duten eragileentzako.

c) Zertan eta noraino esku hartu erabakitzeko, gizartearen eskakizunak, instalazioetako istripuak eta instalazioen berezko arriskugarritasun-maila hartuko dira kontuan batez ere.

2.– Aurreko puntuko kasuetatik kanpora, Industria Administrazioak kasu hauetan bestetan ez du zuzenean esku hartuko eta ikuskaritzako eta kontrol teknikoko lanak egingo:

a) Arauren batean zehazturik dagoenean nahitaezkoa dela esku-hartze hori egitea.

b) Industriako arauak bete behar dituen instalazioren bat egitearekin edo haren funtzionamenduarekin zerikusia duen salaketaren bat dagoenean, baldin eta salaketa oinarritutzat jotzen bada eta, hura argitzeko, ikuskaritza-lana egitea ezinbestekoa bada.

c) Istripuren bat gertatzen denean eta istripu hori industriako arauak bete behar dituen instalazioren bat egiteko prozesuaren edo funtzionamendu-prozesuaren ondorio denean, baldin eta dagokion ikuskatze-lana beharrezkotzat jotzen bada zer gertatu den argitzeko edo erantzukizuna norena den zehazteko.

3.– Ikuskaritza-lana egiten duten Industria Administrazioko langileak, lan horretan, agintaritzaren agentetzat hartuko dira, eta, beren buruak identifikaturik,

ditar el cumplimiento de las condiciones y requisitos de seguridad industrial establecidos en las correspondientes disposiciones normativas.

2.– El cumplimiento de las disposiciones de seguridad, de acuerdo con las disposiciones que sean aplicables en cada caso, se acreditará por alguno de los siguientes medios:

a) Por declaración del titular de las instalaciones, fabricante, representante, distribuidor o importador del producto.

b) Por certificación o acta de agente colaborador de los previstos en el artículo 14 de esta ley.

c) Por cualquier otro medio de comprobación previsto en el Derecho Comunitario y en la legislación aplicable.

*Artículo 13.–* Potestad de control e intervención de la administración industrial.

1.– El control del funcionamiento de las instalaciones, aparatos, equipos o productos sujetos a seguridad industrial que se efectúe por los servicios técnicos dependientes de la administración industrial, sin perjuicio de lo establecido en el punto siguiente, se realizará vía auditoría o por muestreo. Estos controles se ajustarán a los siguientes criterios:

a) Tendrán carácter periódico, en función de los planes de auditoría o de control que se aprueben por los órganos competentes.

b) Se establecerán procesos integrales de control, que incluirán tanto las instalaciones, aparatos, equipos o productos afectados como a los agentes intervinientes.

c) El grado de intervención se evaluará, prioritariamente, teniendo en cuenta las demandas sociales, así como la siniestralidad y la peligrosidad intrínseca de las instalaciones.

2.– Fuera de los supuestos previstos en el punto anterior, la administración industrial intervendrá de forma directa, ejerciendo funciones inspectoras o de control técnico, únicamente en los supuestos siguientes:

a) Cuando exista una norma que prevea con carácter preceptivo y obligatorio la referida intervención.

b) Siempre que exista una denuncia relacionada con la ejecución o funcionamiento de una instalación sujeta a reglamentación industrial que se califique como fundada y para cuyo esclarecimiento sea necesaria la realización de una inspección.

c) En caso de accidente derivado del proceso de ejecución o de funcionamiento de una instalación sujeta a reglamentación industrial, siempre que se considere que la correspondiente inspección es necesaria para el esclarecimiento de los hechos o para la determinación de responsabilidades.

3.– El personal dependiente de la administración industrial que realice la inspección tendrá en el ejercicio de esta función la consideración de agente de la auto-

nahi badute, aurretiaz abisatu gabe sar daitezke lege honetan arauturik dauden jardueretan aritzen diren instalazioetara.

4.– Ikuskaritza-bisita guztietan, zer gertatu den azaltzeko akta bat egin beharko da; akta horren edukia erregelamenduz erabakitakoa izango da, eta interesatuek alegaziorik aurkezten badiote, horiek ere jaso beharko dira. Azaltzen dituzten gertakariei dagokienez, eta kontrakorik ezean, halako aktak gauza ziurtzat hartu behar dira eta froga-balioa izango dute; nolanahi ere, aktaren aurkako frogak kontuan har daitezke batera, bai interesatuek aurkeztutakoak badira eta bai ofizioz prozeduran sartutakoak badira. Dena ere legez ezarritako froga-araubideari jarraituz.

*14. artikulua.–* Eragile laguntzaileak.

1.– Lege honek dakartzan ondorioetarako, halako erakunde batzuk eragile laguntzailetzat hartuak izateko, erakunde horiek Autonomia Erkidego honi egiaztatu behar diote badituztela beren zeregina betetzeko gaitasun tekniko eta finantzazkoa eta beharrezko inpartzialtasuna, betetzen dituztela agindutako xedapen teknikoak, eta betetzen dituztela, orobat, industriako segurtasunarekin zerikusia duten eginkizunetan aritzeko eskakizunak –legez edo erregelamenduz zehaztuak–, lege honetan ezarrita dagoen moduan. Hauek hartu ahal izango dira eragile laguntzailetzat:

a) Kontrolerako edo egiaztapenerako erakunde modura edo saiakuntza edo kalibrazio laborategi modura baimendutakoak.

b) Teknikari tituludun gaitasundunak eta erregelamenduetan aurreikusitako espezialitateetakoren batean baimendurik dauden profesional edo enpresak.

c) Edozein energia-gai banatu edo salerosten duten enpresak.

d) Industriako segurtasun-arauak bete behar dituen zerbitzu publiko baten emakidadunak.

e) Industria-kontuetan laguntzeko eginkizunak dauzkaten elkargo edo kontseilu profesionalak. Legez edo estatutuetan izendatuta eduki behar dituzte eginkizunak.

f) Normalizaziorako eta egiaztapenerako erakundeak, batera aritzen direnetan industriako kalitate eta segurtasunerako.

g) Dagokion erregelamenduaren arabera, Administrazioarekin segurtasun-gaietan lankidetzan aritzeko zereginak dauzkaten beste erakunde batzuk.

2.– Eragile laguntzaileek, industriako instalazioen funtzionamendua kontrolatzeko prozeduretan ez ezik, instalazio horiek baimentzeko edo martxan jartzeko prozeduretan ere parte hartu ahal izango dute. Halakoetan, industriako eskumenak dituen organoak gauza hauek zehaztu beharko ditu aurretiaz, erregelamendu bidez:

ridad, y se hallará facultado para acceder, en su caso sin previo aviso, tras su identificación, a las instalaciones en las que se desarrollen actividades objeto de esta ley.

4.– De toda visita de inspección se levantará un acta descriptiva de los hechos, cuyo contenido se ajustará al reglamentariamente previsto y en la que se harán constar las alegaciones que se formulen a la misma por los interesados. Estas actas gozan de la presunción de certeza y valor probatorio en relación con los hechos que consten en las mismas, sin perjuicio de la consideración conjunta de las pruebas que puedan contradecir el acta, tanto si son aportadas por los interesados como si son incorporadas de oficio al procedimiento. Todo ello con arreglo a la regulación legal del régimen probatorio.

*Artículo 14.–* Agentes colaboradores.

1.– A los efectos previstos en la presente ley, se consideran agentes colaboradores todas aquellas entidades que acrediten ante esta Comunidad Autónoma la solvencia técnica y financiera e imparcialidad necesarias para realizar su cometido, el cumplimiento de las disposiciones técnicas que se dicten, así como el cumplimiento de los requisitos legal o reglamentariamente establecidos para el ejercicio de funciones relacionadas con la seguridad industrial, en los términos establecidos en la presente ley. Podrán tener la consideración de agentes colaboradores los siguientes:

a) Los autorizados como organismos de control o de certificación o como laboratorios de ensayo o de calibración.

b) Los técnicos titulados competentes y los profesionales o empresas autorizados en alguna de las especialidades reglamentariamente previstas.

c) Las empresas distribuidoras o comercializadoras de cualquier producto energético.

d) Los concesionarios de un servicio público sometido a normas de seguridad industrial.

e) Los colegios o consejos profesionales que tengan legal o estatutariamente atribuidas funciones de colaboración en materia de industria.

f) Organismos de normalización y entidades de acreditación en sus actuaciones comunes para la calidad y seguridad industrial.

g) Otras entidades que, en virtud de lo establecido en la correspondiente reglamentación, tengan atribuidas funciones de colaboración con la Administración en materia de seguridad.

2.– Los agentes colaboradores podrán intervenir, además de en el control del funcionamiento de las instalaciones industriales, en los procedimientos de autorización o puesta en servicio de las mismas. En este caso, con carácter previo, el órgano competente en materia de industria determinará reglamentariamente:

a) Eragile horiek bete beharreko eskakizunak eta baldintzak.

b) Esku-hartze hori erregelamenduetako zein esparrutan gerta daitekeen.

c) Eragile horiek bete behar dituzten kontroleko prozedurak eta sistemak.

3.– Administrazioaren berezko eginkizunetan ari badira, erakunde horiek egiten dituzten ziurtagiriak, ikuskatze edo kontrol aktak edo bestelako egintzak Administrazioak berak egindakoen balio eta eraginkortasun berbera izango dute, eta haien aurka erreklamazioa jar daiteke industriako eskumenak dituen organoan. Erreklamazio horien ebazpenen aurka, berriz, legez zehazturik dauden errekurtsoak jar daitezke.

4.– Istripuren baten berri izaten badute, eta istripuak erregelamenduz dagokien esku-hartze eremuko industriako instalazio, tresna edo produkturen bat egitearekin, erabiltzearekin edo haren funtzionamenduarekin zerikusirik badu, eragile laguntzaileek organo eskudunari jakinarazi behar diote, derrigor. Eta istripuarrisku larria edo larrialdiren bat baldin badago, aurretiazko beharrezko neurriak hartu, eta organo eskudunari jakinarazi beharko diote berehala, eta hark berretsi edo baliogabetu egingo ditu segituan.

5.– Era berean, industriako segurtasunaren inguruan egiten duten lanari buruzko agiri guztiak gordeta eduki behar dituzte eragile laguntzaileek. Ikuskatze-lanei eta kontrolei buruzko agiriak gutxienez hamar urtez gorde behar dituzte, non eta erregelamenduz ez den beste eperen bat zehazten.

6.-Eragile laguntzaileek, beren lanean, inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatu beharra daukate, bai eta isilpekotasuna ere.

7.– Baimena eraginkorra izango bada, eragile laguntzaileak behartuta egongo dira, erregelamenduz eskatzen den moduan, erantzukizun-arriskuak babestuko dituzten aseguru-polizak sinatzera; polizek zehazten den zenbatekoaren araberakoak izan beharko dute, baina zenbateko horrek ez du mugatuko aipatutako erantzukizuna.

*15. artikulua.*– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua.

1.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua sortzen da, industria-gaietan eskumena duen sailari atxikita. Industria-segurtasunaren arloko gizarte-interes eta jarduerak ordezkatzen dituzten sektoreek aholku eman eta parte hartzeko organoa izango da. Organo horrek parte hartuko du Autonomia Erkidego honen industria-segurtasunerako politika taxutzen, aholku ematen eta jarraipena egiten, arlo honetan jarduteko planak bultzatuz eta koordinatuz.

a) Los requisitos y condiciones que deban cumplir los referidos agentes.

b) Los campos reglamentarios en los que la referida intervención se pueda producir.

c) Los procedimientos y sistemas de control a los que tales agentes se deban someter.

3.– Los certificados, actas de inspección o control u otros actos emitidos o realizados por cualquiera de estos organismos, cuando actúen ejerciendo funciones propias de la Administración, tienen el mismo valor y eficacia que los emitidos por ésta y podrán ser objeto de reclamación ante el órgano competente en materia de industria. Contra la resolución de estas reclamaciones se podrán interponer los recursos que legalmente procedan.

4.– Los agentes colaboradores están obligados a comunicar al órgano competente cualquier accidente del que tengan conocimiento y esté relacionado con la ejecución, uso o funcionamiento de una instalación, aparato o producto industrial que se encuentre dentro de su ámbito reglamentario de intervención. Así mismo, en los casos de grave riesgo de accidente o emergencia, están obligados a adoptar las medidas preventivas necesarias, comunicándolo de inmediato al órgano competente, que deberá proceder a su inmediata ratificación o revocación.

5.– Así mismo, los agentes colaboradores deben conservar toda la documentación relativa al ejercicio de su actividad relacionada con la seguridad industrial. Los documentos que se refieren a las inspecciones y controles deberán conservarse durante un plazo mínimo de diez años, salvo que reglamentariamente se establezca otro distinto.

6.– Los agentes colaboradores operarán de forma que se garanticen la imparcialidad y la objetividad, así como la confidencialidad, en el ejercicio de sus intervenciones.

7.– Los agentes colaboradores vendrán obligados, en los términos en los que reglamentariamente se exija, como requisito previo a la efectividad de la autorización, a suscribir pólizas de seguro que cubran los riesgos de responsabilidad en la cuantía que se establezca, sin que la misma limite dicha responsabilidad.

*Artículo 15.*– Consejo Vasco de Seguridad Industrial.

1.– Se crea el Consejo Vasco de Seguridad Industrial, adscrito al departamento competente en materia de industria. Será el órgano consultivo y de participación de los sectores representativos de intereses sociales y actividades relacionadas con la seguridad industrial. Este órgano participará en la elaboración, consulta y seguimiento de la política de seguridad industrial de esta Comunidad Autónoma, impulsando y coordinando planes de actuación en la materia.

2.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren osaera eta jarduera-arauak erregelamendu bidez ezarriko dira, lege honetan xedatutakoaren arabera. Batzorde iraunkor bat ere arautu ahal izango da, kontseiluak haren esku utzitako eskumenak baliatuko dituena, eta beharrezkotzat jotako komiteak ere bai, erregelamendu-lanetan laguntzeko eta kontrolerako organoen jarduna koordinatzeko batik bat.

3.– Kontseiluak berak ezarriko ditu bere antolaketa eta barne-araudia, indarrean dauden arau eta xedapen administratiboen arabera.

*16. artikulua.–* Industriako agiri teknikoak.

1.– Industriako segurtasuneko erregelamendu teknikoetan aurreikusirik eta arauturik baldin badaude, Administrazioak bere eskura izango ditu aurkeztu behar zaizkion agiri tekniko guztiak. Agiriak eskura izateko ahalmen hori jabetza intelektualeko eta industrialeko arauetan agindurik dagoenaren arabera erabili beharko da, edo, bestela, azaroaren 26ko 30/1992 Legean jartzen duenaren arabera, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera.

2.– Eta, dagozkion arau teknikoen arabera, lege honetako 14. artikuluan arauturik dauden eragile laguntzaileetakoren batek ere parte hartu behar badu, aipatutako agiri teknikoak egin beharko ditu eragile horrek, derrigor, instalazioa egiten amaitzen denean eta teknikoki zuzena denean.

*17. artikulua.–* Arriskurik badago, zuhurtziako neurriak hartzea.

1.– Industriako jarduera edo instalazioren batek akatsak baldin baditu eta, funtzionatzen jarraituz gero, horrek arriskua badakar pertsonentzat edo ondasunentzat, industriako eskumenak dituen sailak bere esku izango du hura geldiaraztea edo beste edozein zuhurtziako neurri hartzea. Neurri horiek arriskuaren heinekoak izango dira, eta arriskuak aurrera ez egiteko behar direnak soil-soilik.

2.– Zuhurtziako neurri horiek zein prozeduraren arabera hartu behar diren erregelamendu bidez erabakiko da. Halakoetan, erregelamenduak irizpide hauek izan beharko ditu kontuan:

a) Neurri horiek arriskua desagertu arte iraungo dute –harrarazi zituen arriskua desagertu arte–, eta akatsak konpontzeko behar den denbora edo beste neurri-mota batzuk hartzeko beharrezko denbora gainditu gabe, betiere.

b) Neurri horiek zuzenean teknikari ikuskatzaileek har ditzakete, edo, industriako segurtasunaren inguruko eginkizunetan ari direnean, eragile laguntzaileek.

2.– La composición y normas de funcionamiento del Consejo Vasco de Seguridad Industrial se establecerán reglamentariamente, de acuerdo con lo establecido en la presente ley, y se podrá regular la existencia de una comisión permanente con competencias delegadas del consejo, así como de los comités que se estimen convenientes, en especial para colaborar en las tareas reglamentarias y coordinar las actuaciones en materia de organismos de control.

3.– La organización y el régimen de funcionamiento interno serán establecidos por el propio consejo, de acuerdo con las normas y disposiciones administrativas vigentes.

*Artículo 16.–* Documentación técnica industrial.

1.– La Administración dispondrá de la documentación con contenido técnico que deba presentarse ante la misma, siempre que se trate de documentos previstos y regulados en los correspondientes reglamentos técnicos en materia de seguridad industrial. Este poder de disposición se ejercerá conforme a lo establecido en normas reguladoras de la propiedad intelectual e industrial y, en su caso, de acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Así mismo, siempre que de acuerdo con la correspondiente reglamentación técnica esté prevista la intervención de alguno de los agentes colaboradores regulados en el artículo 14 de la presente ley, éstos están obligados a emitir la referida documentación técnica cuando la ejecución de la instalación se haya efectuado y la misma sea técnicamente correcta.

*Artículo 17.–* Adopción de medidas cautelares en supuestos de riesgo.

1.– El departamento competente en materia de industria podrá paralizar o adoptar cualquier otro tipo de medida cautelar en relación con el funcionamiento de una actividad o instalación industrial siempre que la misma adolezca de defectos que determinen que su funcionamiento implique un riesgo de daños a las personas o a los bienes. Las medidas adoptadas serán proporcionales al riesgo y las estrictamente necesarias para evitar la materialización del mismo.

2.– Las medidas cautelares se adoptarán de acuerdo con el procedimiento que reglamentariamente se establezca. A estos efectos, la referida reglamentación tendrá en cuenta los siguientes criterios:

a) Las medidas adoptadas durarán hasta la desaparición del riesgo que las motivó y no podrán exceder del tiempo estrictamente necesario para la subsanación de las deficiencias o para la adopción de otro tipo de actuaciones.

b) Estas medidas podrán ser adoptadas directamente por los técnicos inspectores y por los agentes colaboradores cuando estén ejerciendo funciones relacionadas con la seguridad industrial.

Neurriok berehala berretsi edo baliogabetu beharko ditu organo eskudunak.

c) Edonola ere, zuhurtziako neurri jakin bat hartzekotan, teknikoki arrazoiturik egin beharko da, eta dena delako instalazioaren funtzionamenduaren edo jardueraren eta arriskuaren artean zein harreman edo lotura kausal dagoen azaldu beharko da.

d) Instalazioren bat geldiarazteko, haren funtzionamenduak kalteak sortzeko arrisku larria eta berehalakoa ekarri behar du, nahitaez. Erabat geldiaraz daiteke, edo zatiren bat geldiaraz daiteke; zatiren bat geldiarazita teknikoki posible bada helburua betetzea, zati hori geldiaraztea erabaki behar da, beti.

3.– Zuhurtziako neurriak gorabehera, egindako arau-hausteari dagozkion zehapenak ezarri egingo dira, lege honetako VI. kapituluan xedaturik dagoen moduan.

## IV. KAPITULUA
## INDUSTRIAREN KALITATEA

18. artikulua.– Industriaren kalitatea.

1.– Lege honetan aurreikusita daudenetarako, honako hau da industriaren kalitatearen definizioa: izaera pribatuko arau batean ezarritako prozesu, eskakizun eta baldintza teknikoen multzoa, ekoizpen eta kudeaketa prozesuak zein industriako produktu, tresna edo ekipoen zehaztapen teknikoak arautzen dituena; hori betetzea ez da nahitaezkoa izango, ez delako arauzko xedapen batek agintzen duen zerbait.

2.– Aurreko paragrafoan aipatzen diren arauak arauzko xedapen baten bidez agindutakoak baldin badira, industriako segurtasunaren arloko bihurtuko dira, segurtasun horri dagozkionetan.

*19. artikulua.*– Industriaren kalitaterako azpiegitura.

1.– Industria Administrazioak industriaren kalitaterako azpiegitura osatzen duten eragile publiko zein pribatuek bete beharreko antolakuntza eta funtzionamenduko eskakizun eta baldintzak ezarri ahal izango ditu, Autonomia Erkidego honetan jarduteko aukera izan dezaten. Eragileon artean sartzen dira normalizazio eta egiaztapenerako erakundeak, ziurtapenerako erakundeak eta saiakuntza eta kalibrazioko laborategiak.

2.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak Euskadiko industria-sarearen lehiakortasuna garatzea eta hobetzea bultzatuko du, hain zuzen ere ekoizpen eta banaketa prozesuen, antolaketa-sistemen eta kudeaketako kalitatearen eraginkortasuna eta malgutasuna bultzatuta. Bereziki, honako hauek bultzatuko dira:

a) Ekonomia eta gizarte arloko jarduerako sektore eta interes guztiek parte hartzea bai normalizazioan eta normalizatze hori hedatzeko prozesuan eta bai ziurtapenean, betiere arauekin bat etorriz.

Dichas medidas deberán ser inmediatamente ratificadas o revocadas por el órgano competente.

c) En cualquier caso, la adopción de un tipo concreto de medida cautelar deberá efectuarse de forma técnicamente motivada, poniéndose de manifiesto la relación o nexo causal que existe entre el funcionamiento de la instalación o actividad y el riesgo.

d) La medida de paralización sólo se podrá adoptar cuando el funcionamiento de la instalación implique un riesgo grave e inminente de daños. Esta paralización podrá ser total o parcial, y deberá acordarse la paralización parcial siempre que, cumpliéndose la misma finalidad, sea técnicamente posible.

3.– Las medidas cautelares se adoptarán sin perjuicio de las sanciones que se pudieran imponer por la infracción cometida, de acuerdo con lo dispuesto en el Capítulo VI de esta ley.

## CAPÍTULO IV
## CALIDAD INDUSTRIAL

Artículo 18.– Calidad industrial.

1.– A los efectos previstos en la presente ley, se entiende por calidad industrial el conjunto de procesos, requisitos y condiciones técnicas establecidos en una norma de naturaleza privada, reguladora tanto de los procesos productivos y de gestión como de las especificaciones técnicas de los productos, aparatos o equipos industriales, cuyo cumplimiento no es obligatorio por no venir impuesto por una disposición normativa.

2.– Cuando las normas a las que se refiere el párrafo anterior sean exigibles por una disposición de carácter normativo, pasarán a formar parte del ámbito de la seguridad industrial, en los aspectos que afecten a la misma.

*Artículo 19.*– Infraestructura para la calidad industrial.

1.– La administración industrial podrá establecer los requisitos y condiciones de organización y funcionamiento que deberán cumplir, para su autorización por esta Comunidad Autónoma, los agentes, públicos o privados, que constituyen la infraestructura para la calidad industrial, incluidos los organismos de normalización y de acreditación, entidades de certificación y laboratorios de ensayo y calibración.

2.– La Administración de la Comunidad Autónoma promoverá el desarrollo y mejora del nivel de competitividad del tejido industrial vasco, mediante el fomento de la eficiencia y flexibilidad de los procesos de producción y distribución, de los sistemas de organización y calidad en la gestión. En particular, se fomentará:

a) La participación de todos los sectores e intereses de la actividad económica y social en la normalización, así como en su difusión, y en la certificación de conformidad a normas.

b) Langileen informazioa, kontsulta eta parte-hartzea.

c) Normalizazio, egiaztapen, ziurtapen, ikuskapen eta saiakuntzako erakundeak egotea, behar besteko gaitasun teknikoarekin, Europan eta nazioartean aitormena lor dezaten.

d) Enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezarri eta hobetzea.

e) Kalitatearen inguruko sentsibilizazio eta hedapen lana egin eta prestakuntza eskaintzea.

f) Enpresetako kudeaketa hobetu eta kudeaketa-modu horren erabilera hedatzeko tresna berriak prestatzea helburu duten azterlan eta jarduera-proposamenak egitea.

g) Erantzukizun sozial korporatiboa.

V. KAPITULUA
INDUSTRIA SUSTATZEA

*20. artikulua.–* Plan estrategikoak.

Industriako eskumena daukan sailak industria-jarduerari buruzko lau urteko plan estrategikoak egingo ditu. Planak erakundeen artekoak izango dira eta gaiarekin zerikusia duten gizarte eta ekonomia eragile guztiek hartuko dute parte. Gai hauek jorratuko dituzte planek: lege honetan aurreikusten diren industria-politiken diagnostikoak, printzipioak, helburuak, politikak, baliabideak, finantzaketa eta ebaluazioa. Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaizkio plan horiek, eztabaida ditzan, eta haien betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo da aldian-aldian.

*21. artikulua.–* Industria sustatzeko programak.

1.– Hazkunde iraunkorreko ekonomia-eredu bat sustatzen laguntzeko eta horren bidez lehiakortasunean, produktibitatean, solidaritatean eta lurraldeen arteko orekan aurrera egin ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak industria sustatzeko programak abiaraziko ditu.

2.– Aipatutako programa horiek ondorengo oinarrizko helburuak izango dituzte:

a) Industria-jarduera garatu, modernizatu eta lehiakor egitea.

b) Enpresen maila teknologikoa eta nazioartekotasuna areagotzea.

c) Industria-jarduerarekin eta negozio-eredu berriekin zerikusia duten balio erantsiko zerbitzu teknikoak areagotzea eta sustatzea.

d) Industria modu egokian finantzatzea, eta horretan arreta berezia eskaintzea enpresa txiki eta tartekoei.

e) Herrialde osoa modu orekatuan garatzea, kohesio ekonomiko eta soziala sendoagoa izan dadin. Eta, zehazkiago, langabeziaren ondorioz edo gizarte-egoeraren

b) La información, consulta y participación de los trabajadores.

c) La existencia de entidades de normalización, acreditación, certificación, inspección y ensayo con demostrada capacidad técnica, para que puedan ser reconocidas en el ámbito europeo e internacional.

d) La implantación y mejora de los sistemas de gestión de la calidad en las empresas.

e) La sensibilización, divulgación y formación en materia de calidad.

f) La elaboración de estudios y propuestas de actuaciones encaminadas a diseñar nuevos instrumentos para la mejora de la gestión empresarial y la difusión de su utilización.

g) La responsabilidad social corporativa.

CAPÍTULO V
PROMOCIÓN INDUSTRIAL

*Artículo 20.–* Planes estratégicos.

El departamento competente en materia de industria elaborará planes estratégicos cuatrienales de actividad industrial, de carácter interinstitucional, en cuya elaboración participarán todos los agentes sociales y económicos implicados. Estos planes versarán sobre los diagnósticos, los principios, los objetivos, las políticas, los instrumentos, la financiación y la evaluación de las políticas industriales previstas en esta ley. Se remitirán al Parlamento Vasco para su debate, y se realizará una evaluación periódica de su grado de ejecución.

*Artículo 21.–* Programas de promoción industrial.

1.– Con el fin de contribuir al desarrollo de un modelo económico de crecimiento sostenible, que posibilite seguir avanzando en términos de competitividad, productividad, solidaridad y equilibrio territorial, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco adoptará programas de promoción de la actividad industrial.

2.– Los referidos programas tendrán como objetivos básicos los siguientes:

a) El desarrollo, la modernización y competitividad de la actividad industrial.

b) La mejora del nivel tecnológico y de la proyección internacional de las empresas.

c) El incremento y promoción de los servicios técnicos de valor añadido relacionados con la actividad industrial y con los nuevos modelos de negocio.

d) La adecuada financiación de la industria, con especial atención a las empresas de pequeña y mediana dimensión.

e) El desarrollo armónico del conjunto del país para reforzar su cohesión económica y social. En particular, el desarrollo de las zonas en las que exista una es-

gainbeheraren eraginez bereziki kaltetuta dauden eskualdeen garapena bultzatzea.

f) Enpresen arteko elkarlana bultzatzea, enpresen elkarte, talde eta beste erakunde batzuk sor daitezen.

g) Industriek ingurumenarentzat iraunkorrak diren eta energiaren ikuspegitik eraginkorragoak diren produktu eta prozesuetara jotzea.

h) Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua garatzea.

i) Langileen prestakuntza espezifikoak garatzea.

j) Langileen informazioa, kontsulta eta parte-hartzea sustatzea.

k) Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzea.

3.– Eusko Jaurlaritzak zenbait klausula jarri ahal izango ditu, bere eskumenen eremuan, industrien lekualdatzeei aurrea hartzeko.

4.– Artikulu honetan aipatzen diren helburuekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko industriaren sustapena edo industria-politika ondorengo arloetan banatzen da:

a) Industria sustatu eta antolatzea.

b) Informazioaren eta ezagutzaren gizartea.

c) Teknologia eta berrikuntza.

d) Nazioartekotzea.

***22. artikulua.***– Industria sustatzea.

Arlo honen barruan sartzen dira produkzio-jarduera sustatzea helburu duten Administrazioaren jarduera guztiak, sustatze-lan hori industria-enpresa berriak sortzeko eta dauden industriak garatzeko laguntzen bidez egiten dutenak. Era berean, enpresek lehiarako behar besteko tamaina izatea helburu duten ekimenak garatuko dira, eta horren barruan sartuko da zailtasunak dituzten enpresei bultzada ematea. Horretarako, ondorengo jarraibideak izango dira kontuan:

a) Jarduera-programak egitea, enpresa arloko ekimenak sustatu eta industria eta ikasketa enpresak sortzeko.

b) Industria sustatzeko eta teknologia garatzeko helburua duten industriako sektore eta enpresentzako finantzabideak bultzatzea.

c) Berriz industria garatzeko premia duten Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan industria sustatzea, arlo horretako eskumenak dituzten beste erakunde batzuekin elkarlanean.

d) Indarra hartzen ari diren sektore edo esparruetan edo behar besteko tamaina hartu ez dutenetan lehiarako gaitasun egokia sustatzea zuzenean edo zeharka, enpresen egiturak behar bezala arrazionalizatuta.

pecial situación de desempleo o resulten gravemente afectadas por el declive social.

f) El fomento de la cooperación interempresarial que tenga como objetivo la potenciación de asociaciones, grupos y otras entidades de carácter empresarial.

g) La evolución del tejido industrial hacia productos y procesos medioambientales sostenibles y energéticamente más eficientes.

h) El desarrollo de la investigación básica y aplicada.

i) El desarrollo de las cualificaciones específicas de los trabajadores.

j) El fomento de la información, consulta y participación de los trabajadores.

k) El fomento de la responsabilidad social corporativa.

3.– El Gobierno Vasco podrá establecer en el ámbito de sus competencias cláusulas tendentes a prevenir posibles deslocalizaciones.

4.– De acuerdo con los objetivos previstos en este artículo, la promoción o política industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco se articula en los siguientes sectores:

a) Promoción y ordenación industrial.

b) Sociedad de la información y del conocimiento.

c) Tecnología e innovación.

d) Internacionalización.

***Artículo 22.***– Promoción industrial.

En esta área se incluyen todas las actuaciones de la Administración encaminadas a promover la generación de actividad productiva mediante el apoyo a la creación de nuevas empresas industriales y al desarrollo de las existentes. Así mismo, se desarrollarán iniciativas que tengan como finalidad el adecuado dimensionamiento competitivo de las empresas, que habrá de incluir el relanzamiento de aquellas que se encuentren en dificultades:

a) Elaborar programas de actuación para el fomento de iniciativas empresariales y de creación de empresas industriales y del aprendizaje.

b) Promover instrumentos de financiación para los sectores y empresas industriales que tengan por objeto la promoción industrial y el desarrollo tecnológico.

c) Impulsar la promoción industrial de zonas del País Vasco con necesidades de reindustrialización, en colaboración con otras instituciones competentes.

d) Promover directa o indirectamente, en sectores o áreas de actividad emergentes o insuficientemente dimensionadas, una adecuada capacidad competitiva que racionalice las estructuras de las empresas.

e) Enpresen elkarte egonkorrak sortzea bultzatuko duten programak, tresnak edo jarduerak garatzea.

f) Zailtasunak dituzten enpresentzako programak eta jarduera-proposamenak egitea eta, bideragarriak badira, enpresa horiei berriz indarra hartzen laguntzea, lanpostuak eta industria-jarduera mantendu eta sortzeko.

g) Industria-azpiegiturak kokatu eta lehian behar bezala jarduteko balioko duten azpiegitura fisikoak eta ingurune teknologikoak garatzea.

*23. artikulua.–* Informazioaren eta ezagutzaren gizartea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, industriako sektoreak sustatu eta antolatzeaz gainera, euskal gizartean informazioaren eta ezagutzaren gizartea garatzea sustatuko du, eta eginkizun hori industriak aurrera egiteko oinarrizkoa izango da. Dena den, bere hartan iraungo dute administrazio eta gobernu elektronikoaren arloan beste administrazio publiko batzuek dituzten eskumenek.

2.– Horren guztiorren inguruan, informazioaren eta ezagutzaren gizartea garatzeko neurriak hartuko dira, ondorengo irizpideak kontuan izanda:

a) Administrazioko izapideak telematikaren bidez egin daitezen sustatzea.

b) Herritar eta enpresa guztiek teknologia berrien inguruko prestakuntza izateko eta teknologia horietaz baliatzeko erraztasunak ematea.

c) Ezagutza partekatzeko guneak sortzeko behar den teknologia-azpiegitura garatzea.

*24. artikulua.–* Teknologia eta berrikuntza.

Berrikuntza eta teknologia propioen garapena bultzatuko da, eta, horrekin batera, baita Euskal Autonomia Erkidegoko industrietan teknologia aurreratuak sartzea eta taldean erabiltzeko teknologia-azpiegiturak sortzea ere, ondorengo arlootako ekimenak garatuz:

a) Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoan jarduteko proiektuak, oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arloan.

b) Industriaren lehiakortasuna hobetzearen alde lan egiteko azpiegitura teknologiko eraginkorra sortu eta sendotzea bultzatzea, beste administrazio batzuekin elkarlanean.

c) Enpresen eta teknologia eskaintzen duten erakundeen artean industria arloko berrikuntzen inguruko teknologia trukatzeko planak.

d) Euskal eragile teknologikoekin eta teknologiaren arloko erakunde arteko bilguneekin elkarlanean aritzea.

e) Desarrollar programas, instrumentos o actuaciones que promuevan la creación de agrupaciones interempresariales de carácter estable.

f) Elaborar programas y propuestas de actuación en relación con las empresas en dificultades y promover su relanzamiento cuando puedan resultar viables, para el mantenimiento y creación de puestos de trabajo y actividad industrial.

g) Desarrollar infraestructuras físicas y entornos tecnológicos que posibiliten la ubicación y adecuado desarrollo competitivo de proyectos industriales.

*Artículo 23.–* Sociedad de la información y del conocimiento.

1.– Desde la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, junto con la promoción y ordenación de los sectores industriales, se fomentará el desarrollo de la sociedad de la información y del conocimiento en la sociedad vasca. Esta actuación, que constituirá un elemento básico del desarrollo industrial, se llevará a cabo sin perjuicio de las competencias que en relación con la administración y gobierno electrónicos correspondan a otras Administraciones Públicas.

2.– A estos efectos, se promoverán medidas tendentes al desarrollo de la sociedad de la información y del conocimiento, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

a) Promover la tramitación administrativa por vía telemática.

b) Facilitar la formación y el acceso de todos los ciudadanos y empresas a las nuevas tecnologías.

c) Desarrollar la base tecnológica necesaria para la creación de espacios de conocimiento compartido.

*Artículo 24.–* Tecnología e innovación.

Se promoverá la innovación y el desarrollo de tecnologías propias, así como la incorporación de tecnologías avanzadas en las empresas industriales del País Vasco y la generación de infraestructuras tecnológicas de utilización colectiva, para lo cual se desarrollarán iniciativas en las siguientes áreas:

a) Proyectos de actuación en materia de investigación y desarrollo e innovación tecnológica en las áreas de investigación básica y aplicada.

b) Fomento de la creación y consolidación de una eficiente infraestructura tecnológica al servicio de la mejora de la competitividad industrial, con la colaboración de otras administraciones.

c) Planes de transferencia tecnológica en el ámbito de la innovación industrial entre las empresas y las entidades ofertantes de tecnología.

d) Colaboración con los agentes tecnológicos vascos, así como con los foros de encuentro interinstitucionales en materia de tecnología.

e) Taldean erabiltzeko azpiegitura teknologikoak, industriaren eta enpresaren arloko informazioa hedatu ahal izateko eta industria-jabetzako agerkarien bidez eskura daitekeen teknologiari buruzko informazioa izateko, betiere enpresek horren guztiorren berri zehatzagoa izan dezaten.

f) Industria-jarduera ingurumenaren eta segurtasunaren eskakizunetara egokitzea, eta, horretarako, aurrezaintzako eta babeserako beharrezko neurriak hartzea eta zuzendu beharrekoak zuzentzea, teknologia egokiak eskuratu eta garatuta.

g) Beste administrazio eta erakunde pribatu batzuekin akordioak sortzea eta sustatzea oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arloan.

*25. artikulua.–* Teknologia-erakundeak.

1.– Beste batzuen artean, nortasun juridiko propioa eduki eta irabazi-asmorik gabekoak izanik beren helburuen artean berariaz informazioaren gizartea, ikerketa edo berrikuntza zientifikoa eta garapen teknologikoa garatzea helburu duten erakundeak sustatu eta bultzatuko dira.

2.– Horrekin batera, teknologiaren arloan diharduten enpresen elkarteak bultzatuko dira, ikerketa eta teknologiarekin zerikusia duten proiektuak aurrera eraman ditzaten; proiektuok, betiere, eragin handia izan beharko dute bai ekonomian eta gizartean eta bai euskal produkzio- sektoreetan diharduten enpresen teknikan eta ikerketan.

3.– Lege hau garatzeko egingo diren xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, artikulu honetan aipatzen diren erakundeak lehentasunezko erakundetzat hartu ahal izango dira ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko erakundetzat sailkatzeari dagokionez eta ondoren Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarean sartzeari begira.

*26. artikulua.–* Nazioartekotzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-enpresek nazioartean lehiatzeko kultura bultzatuko da, enpresen eta industriako sektoreen egiturak merkatuaren eskakizunetara eta nazioarteko jokalekura egokitu daitezen. Horretarako, ondorengo helburuak izango dira kontuan:

a) Atzerriko merkataritza sustatzea.

b) Euskal enpresei atzerrian kokatzen laguntzea, bai enpresa mistoak edo banan banako proiektuak sortzeari begira eta bai dagoeneko indarrean diren proiektuetan parte hartzeari begira.

c) Euskadiko eta atzerriko enpresen artean elkarlanerako akordioak izatea sustatzea.

d) Esportatzeko asmoz diharduten enpresentzat finantzabideak eta beste laguntza-modu batzuk sustatzea.

e) Nazioartekotzea bultzatu nahian dabiltzan erakundeak koordinatzea.

e) Infraestructuras tecnológicas de utilización colectiva para el fomento de la difusión de la información industrial y empresarial, así como de la información de las tecnologías disponibles contenida en los instrumentos de propiedad industrial, para su mejor conocimiento entre las empresas.

f) Adaptación de las actividades industriales a las exigencias medioambientales y de seguridad, potenciando las correspondientes medidas preventivas, protectoras y correctoras, mediante el desarrollo e incorporación de las tecnologías adecuadas.

g) Creación y promoción de acuerdos con otras administraciones y entidades privadas, tanto en el área de la investigación básica como de la aplicada.

*Artículo 25.–* Entidades tecnológicas.

